SERIEAREN KODEA	0202

I.- IDENTIFIKAZIOA

1.1. Seriearen izena

1.1.1	Artxibo-zerbitzuko erreferentzia-kodea		
1.1.2	Artxiboko sailkapen-koadroko kodea		
1.1.3	Indarrean dagoen izena	Udal-etxebizitza tasatuen esleipen-espedienteak	
1.1.4	Aurreko izena / beste izen batzuk		
1.1.5	Definizioa/deskribapena	Udalak sustatutako jabetza-erregimeneko etxebizitzak prezio tasatuan eta babes ofizialeko etxebizitzez bestelako errenta-baldintzekin esleitzeko espedientea	
1.1.6	Egilearen edo egileen izena	Erakundea: Tolosako Udala Arloa: Idazkaritza Saila: Etxebizitza Zerbitzua: Unitatea: Unitate teknikoa:	
1.1.7	Serie baten zatia	Bai:	Ez: X

1.2 Jatorria eta sortze- eta iraungitze-data

Organismoa	**Administrazio-unitatea / Funtzioa**	**Hasierako data**	**Amaierako data**
Toki-administrazioa	Etxebizitza		

1.3 Lege-esparrua

1.3.2 Espezifikoa

Maila	Zenbakia	Izenburua	Xedapenaren data	Buletinaren zenbakia	Argitalpen-data
FA	63/1989	eskualdeei buruzkoa	1989/11/20	ALHAO, 142. zk.	1989/12/11
FA	11/1995	Arabako Lurralde Historikoko Herri-batzarrei buruzkoa	1995/03/20	ALHAO, 038. zk.	1995/03/31
FA	3/95	Bizkaiko udalez gaindiko eremuko erakundeak araupetzekoa	1995/03/30	BAO, 073. zk.	1995/04/18
FA	6/2007	Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituena	2007/04/10	GAO, 078. zk.	2007/04/23
Legea	2/2006	Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa	2006/06/30	EHAA 138. zk	2006/07/20

Udal-ordenantza		Tolosako udal-etxebizitza tasatua arautzekoa	2013/02/20	GAO 40. zk	2013/02/27
Dekretua	100/2004	"Etxebizitza Hutsaren Programa" sustatu eta bultzatzen duen, programa horren araubide juridikoa ezartzen duen eta "Vivienda y Suelo de Euskadi S.A./Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A." (VISESA) Baltzu Publikoari programa kudeatzeko ardura ematen dion Dekretua aldatzeari buruzkoa	2004/06/01	EHAA 110. zk	2004/06/11
Agindua	6435	"Etxebizitza Hutsaren Programaren" lagapen-baldintzei eta esleipen-prozedurari buruzko Aginduaren hirugarren aldaketa egiteko dena	2004/11/26	EHAA, 239. zk.	2004/12/16
Agindua	4993	Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoa.	2006/10/04	EHAA 195. zk	2006/10/11
Dekretua	39/2008	Babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa	2008/03/04	EHAA 59. zk	2008/03/28
Agindua	2828	Babes ofizialeko etxebizitzen esleipen-prozedurei buruzkoa	2008/04/16	EHAA 88. zk	2008/05/12
Agindua	6448	Babes publikoko etxebizitzak sustatzeko laguntzei eta alokairua bultzatzeko neurriei buruzkoa	2008/11/07	EHAA 222. zk	2008/11/19
Agindua	1160	Babes ofizialeko etxebizitzen diseinuari buruzko ordenantzak onartzen dituena	2009/02/12	EHAA 43. zk	2009/03/03
Dekretua	61/2009	316/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, hirugarrenez aldatzeko dena. Dekretu horrek "Etxebizitza Hutsaren Programa" sustatu eta bultzatzen du, programa horren araubide juridikoa ezartzen du eta Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa SA baltzu publikoari programa kudeatzeko ardura ematen dio.	2009/03/10	EHAA 59. zk	2009/03/26

Agindua	2482	Babes ofizialeko etxebizitzen diseinurako ordenantzak onartzen dituen 2009ko otsailaren 12ko Aginduko hutsak zuzentzeko dena	2009/03/11	EHAA 87. zk	2009/05/11
Agindua	6176	"Etxebizitza Hutsaren Programaren" lagapen-baldintzei eta esleipen-prozedurari buruzko Aginduaren hirugarren aldaketa egiteko dena	2009/11/04	EHAA 225. zk	2009/11/23
Agindua	4826	Etxebizitzak erosteko finantza-neurriei buruzkoa	2010/10/06	EHAA 203. zk	2010/10/21
Agindua	5448	Babes ofizialeko etxebizitzen gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa	2010/11/03	EHAA 222. zk	2010/11/18
Agindua	4769	Babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eskatu beharreko urteko diru-sarrera haztatuen mugak aldatzeko dena	2011/09/14	EHAA 187. zk	2011/09/30
Dekretua	268/2011	Kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan	2011/12/20	EHAA 146. zk	2015/08/04
Agindua	4811	Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa	2012/10/15	EHAA 211. zk	2012/10/31
Agindua	5903	honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: 2012ko urriaren 15eko Agindua,	2012/12/12	EHAA 251. zk	2012/12/28
		etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa			
Agindua	5904	Babes ofizialeko etxebizitzak erosketa-aukerarekin alokatzeari buruzkoa	2012/12/12	EHAA 251. zk	2012/12/28
Dekretua	466/2013	"Bizigune" Etxebizitza Hutsen Programa arautzen duena	2013/12/23	EHAA 247. zk	2013/12/30
Legea	3/2015	Etxebizitzarena	2015/06/18	EHAA 119. zk	2015/06/26
Dekretua	146/2015	Kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa,	2015/07/21	EHAA 146. zk	2015/08/04

		etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan			
Dekretua	42/2016	Fidantzak jartzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroari buruzkoa	2016/03/15	EHAA 58. zk	2016/03/29
Agindua	786	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren lurzorua erosteko baldintzak ezartzeko dena, lurzoru horretan azalera-eskubideko zenbait higiezin eraikita baitaude	2017/01/26	EHAA 30. zk	2017/02/13
Agindua	6381	Etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautzen dituena eta deialdia egiten duena	2018/12/18	EHAA 249. zk	2018/12/28
Dekretua	144/2019	Merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) bitartekaritza-programa arautzeko dena	2019/09/17	EHAA 185. zk	2019/09/30

II.- EZAUGARRIAK

2.1 Ezaugarri fisikoak eta orokorrak

2.1.1	Euskarria	Papera / Elektronikoa
2.1.2	Deskribapen-maila	Seriea
2.1.3	Kopiarik badagoen beste euskarri batzuetan	
2.1.4	Urtean zenbat handituko den (balioespena)	
2.1.5	Seriearen bolumena	
2.1.6	Ordenatzeko irizpideak	Kronologikoa.
2.1.7	Seriearen hasierako data	
2.1.8	Seriearen amaierako data	
2.1.9	Ale-kopurua eta non dauden	

2.2 Izapidetze-prozedura

2.2.1	**Espedientea osatzen duten dokumentuak**
Oinarriak onartzea. - Onartzeko proposamena - Hirigintza Batzordearen irizpena	

- Eskumendun organoak oinarriak onartu izanaren ziurtagiria
- GAOn eta tokiko prentsan argitaratzeko iragarkiak
- Alegazioak
- Alegazioen inguruko txostena
- Hirigintza Batzordearen irizpena
- Eskumendun organoak oinarriak behin betiko onartu izanaren ziurtagiria
- Oinarriak behin betiko onartuta
- Iragarkiak aldizkari ofizialerako, prentsarako eta ediktuen taularako
- Jakinarazpena alegazioak aurkeztu dituzten pertsonei - Errekurtsoa

Zerrendak onartzea:

- Eskabidea
- Kalifikaziorako epaimahaiaren deialdia, behin-behineko zerrendak onartzeko
- Onartutako eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzeko proposamena
- Eskumendun organoak zerrendak onartu izanaren ziurtagiria
- GAOn eta tokiko prentsan argitaratzeko iragarkiak
- Interesdunei jakinaraztea.
- Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda
- Alegazioak
- Alegazioen inguruko txostena
- Eskumendun organoak alegazioak ebatzi izanaren ziurtagiria
- Eskumendun organoak behin betiko zerrendak onartu izanaren ziurtagiria- Behin betiko zerrendak
- Interesdunei jakinaraztea.
- Berraztertze-errekurtsoa
- Txosten teknikoa
- Alkatetzaren dekretua, errekurtsoak ebaztekoa
- Interesdunei jakinaraztea.
- Uko egiteak

Etxebitzitzak esleitzeko zozketa

- Zozketarako irizpideak onartzeko proposamena
- Eskumendun organoak irizpideak onartu izanaren ziurtagiria
- Onartutakoei zozketa-sistema eta esleitutako zenbakiak jakinaraztea
- Alkatetzaren dekretua, notarioa zozketa-ekintzara joateko
- Notarioaren akta, lehen zozketarena
- Zozketaren emaitza jakinaraztea eta dokumentazioa aurkezteko errekerimendua - Uko egiteak
- Uko egiteen onarpena jakinaraztea
- Dokumentazioa aurkezteko errekerimendu berria
- Dokumentazioa aurkeztu ez dutenei baztertuak izan direla jakinaraztea
- Baldintzen egiaztatzeen emaitzaren txostena eta bigarren zozketa egiteko prozedurari buruzkoa - Bigarren zozketaren prozedura jakinaraztea
- Prentsa-oharra
- Notarioaren akta, bigarren zozketarena
- Uko egiteak
- Uko egiteen onarpena jakinaraztea **Etxebizitzak aldatzea:**
- Esleipendunen artean etxebizitzak aldatzeko prozeduraren proposamena
- Hirigintza Batzordearen irizpena
- Eskumendun organoak prozedura behin betiko onartu izanaren ziurtagiria
- Etxebizitza aldatzeko eskaerak
- Txosten teknikoa
- Notarioaren akta, zozketarena
- Emaitzak jakinaraztea

2.2.2	Administrazio-prozedura

Oinarriak onartzea
Prozedurari hasiera oinarrien proposamen bat idaztea da. Oinarriek etxebizitzen araubide juridikoa arautuko dute eta etxebizitzen esleipendunak aukeratzeko irizpideak eta sistema ezarriko ditu.
Hirigintza Batzordeak irizpena aurkeztuko dio Udalbatzari edo organo eskudunari, onar dezan, eta erabakia GAOn, tokiko prentsan, ediktuen taulan eta udalaren webgunean argitaratuko da.

Interesdunek egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eta etxebizitzako teknikariak txosten bat egingo du. Hirigintza Batzordeak txostenari buruzko irizpena eman ondoren Udalbatzak edo organo eskudunak onartuko du.

Oinarriak onartzeko erabakia GAOn eta tokiko prentsan argitaratuko da, eta alegazioak egin dituzten pertsonei jakinaraziko zaie.

Zerrendak onartzea
Eskabideak eta identifikazioa egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa (NANa, familia-liburua eta errolda-ziurtagiria) aurkezten joango dira.

Teknikariak eskabideek baldintzak betetzen dituzten aztertu ondoren, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak egingo dira, eta Tokiko Gobernu Batzarrak edo organo eskudunak onartuko ditu. Zerrendak GAOn argitaratuko dira, tokiko prentsan, eta zerrendetako guztiei jakinaraziko zaie pertsonalki, alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Alegazioak aurkeztu ondoren, teknikariak alegazioak ebazteko txosten bat egingo du. Tokiko Gobernu Batzarrak edo organo eskudunak onartuko du txosten hori, eta onartutakoen eta bazter utzitakoen zerrendak behin betiko bihurtuko dira. Alegazioak aurkeztu dituztenei jakinaraziko zaie, egoki irizten dituzten errekurtsoak aurkez ditzaten.

Berraztertzeko errekurtsoak jartzea. Alkatetzaren dekretu bidez ebatziko dira, eta interesdunei jakinaraziko zaie, zeinak haren aurka Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango duten.

Bestalde, zerrendetan onartutako pertsonek, zozketetan parte hartzeko interesik ez badute, uko egiteak aurkeztuko dituzte, eta Udalak uko egiteak onartu egingo ditu, aurkeztu ahala.

Zozketa
Behin betiko zerrendak onartu ondoren, etxebizitzako teknikariak zozketa egiteko irizpideak onartzeko proposamen bat aurkeztuko dio organo eskudunari. Proposamen hori onartu ondoren, onartutakoen zerrendakoei jakinaraziko zaie, zozketarako esleitu zaizkien zenbakiak adierazita. Eta Alkatetzaren dekretu baten bidez notarioari jakinaraziko zaio, zozketa egiteko ekitaldian agertzeko.

Lehenengo zozketa publikoa egingo da notario aurrean, esleipendunak hautatzeko. Notario-aktan jasoko dira zozketaren prozedura, onartutakoen zerrenda eta zozketaren emaitza, esleipendunen eta itxaron-zerrenda osatzen dutenen zerrenda eta guzti.

Zozketaren emaitza jakinaraziko zaie, eta beharrezko dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaie, etxebizitzarik ez dutela egiaztatzeko eta zer diru-sarrera dituzten egiaztatzeko.

Ezarritako epean aurkeztu ez dutenei berriro eskatuko zaie dokumentazioa aurkezteko, eta aurkeztu ez dutenei behin betiko esleipenetik kanpo geratu direla jakinaraziko zaie.

Dokumentazio guztia eskuratu eta aztertu ondoren, teknikariak txosten bat egingo du. Txostena baldintzak egiaztatzeari buruzkoa eta 2. zozketa egiteko jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa izango da, eta Tokiko Gobernu Batzarrak edo organo eskudunak onartuko du. Erabakia interesdunei jakinaraziko zaie eta prentsa-ohar bat argitaratuko da.

Era berean, Alkatetzaren dekretu bidez, notarioari zozketan agertzeko eskatuko zaio.

Ondoren, notario aurrean 2. zozketa egingo da, eta bertan esleituko zaizkie etxebizitzak esleipendunei (aktan, 1. zozketan bezala, zozketa-prozedura, esleipendunen eta esleitutako etxebizitzen zerrenda eta itxaron-zerrendako kideen zerrenda jasoko dira).

Behin betiko esleipendunen zerrenda eta itxaron-zerrenda Tokiko Gobernu Batzarrari edo organo eskudunari aurkeztuko zaizkio, onar ditzan.

Esleipendunek idatziz aurkeztu ahal izango dituzte etxebizitzei uko egiteko eskabideak. Udalak onartu egingo ditu eta itxaron-zerrendetako kideei eskaintzen joango da. Onartuz gero, esleipena Alkatetzaren dekretu bidez egingo da. Onartzen ez bada edo erantzuten ez bada, eskaintzen jarraituko da, itxaron-zerrendako ordenari jarraituz.

Etxebizitzak aldatzea
Etxebizitzako teknikariak, dagoen eskaria ikusita, esleipendunen artean etxebizitzak trukatzeko prozedura-proposamena egingo du, eta Hirigintza Batzordearen irizpena jaso ondoren onartuko da. Prozedura onartu ondoren, eskabideak aurkeztuko dira, eta, txosten tekniko baten ondoren, etxebizitzak aldatzeko zozketa egingo da notarioaren aurrean.

Kontratu pribatuak
Etxebizitzak esleitzeko prozedura amaitutakoan, onuradunek salerosketa-kontratu pribatuak sinatuko dituzte enpresa sustatzailearekin, eta horien ale bat Udalari bidaliko diote.

2.3 Beste dokumentu batzuekiko lotura

2.3.1	Aurreko serieak	Hirigintzako hitzarmenak
2.3.2	Beheragoko serieak	Etxebizitza tasatuen eskualdatze-espedienteak
2.3.3	Lotutako serieak	
2.3.4	Bilduma-dokumentuak	

III. BALORAZIOA

3. Balioak

3.1.	Administratiboa	Lurzoruari buruzko 1346/1976 Legearen 45. artikuluaren arabera indarraldi mugagabea izango dute
3.2	Legezkoa/juridikoa	Bai.
3.3	Zerga-alorrekoa	
3.4	Informatiboa	Bai.
3.5	Historikoa	Ez.

IV. HAUTAKETA

4.1 Hautaketa-proposamena

Kontserbazio iraunkorra	Bai.
Guztiz ezabatzea	
Zati batean ezabatzea	Eskabideak eta horiek justifikatzeko dokumentazioa eta uko egiteak bulegoko artxiboan espedientea ixten denetik 2 urtera. Eta eskriturak sinatzean, salerosketa-kontratu pribatuak ezabatuko dira.

4.2 Laginketa-motaren proposamena

Hautakorra	
Ausazkoa	
Mistoa	
Probabilistikoa	
Beste batzuk	

4.3 Transferentzia-epeak

Artxibo nagusira: epea eta justifikazioa	Bost urte, administrazio-izapidea amaitzen denetik.
Tarteko artxibora / artxibo historikora: epea eta justifikazioa	15 urte.

V. SARBIDEA

5.1	Askea	Bai.
5.2	Mugatua	Bai, eskabideak eta dokumentazioa DPBLOak babesten ditu.
5.3	Epeak	
5.4	Erreprodukzio-baldintzak	Artxibo bakoitzaren erregelamenduaren araberakoa izango da
5.5	Dokumentuen hizkuntza	Gaztelania/Euskara
5.6	Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak	
5.7	Deskribapen-tresnak	
5.8	Iruzkinak	

VI.- OHARRAK

6.1	Oharrak	
6.2	Kudeatzailearentzako gomendioak	

VII- KONTROL-ARLOA / OHARREN ARLOA

Azterketaren arduraduna eta organismoaren izena	Consuelo Urteaga Uría
Landa-lana egin den artxiboa/k	Tolosako Udala
Aztertutako aldien muturreko datak	2005-2009
Azterketaren data	2019ko azaroa
Azterketaren berrikuste-data	
DOBAUBAren onarpen-data	2020/01/08
EHAAko argitaratze-data	2020/02/07
Oharrak	

I. ERANSKINA

DIGITALIZATUTAKO ESPEDIENTEA (Tolosako Udala)

Etxebizitza tasatua esleitzeko espedientea, 2005-2009 Esleipen oinarriak onartzea

- Oinarrien proposamena
- Hirigintza Batzordearen irizpena
- Udalbatzaren onarpenaren ziurtagiria
- Oinarriak
- GAOn argitaratzea
- Prentsan argitaratzea
- Alegazioa
- Txostena
- Hirigintza Batzordearen irizpena
- Oinarriak Udalbatzak onartu izanaren ziurtagiria
- Oinarrien behin betiko onarpena
- GAOn argitaratzea
- Prentsan argitaratzea

Onartutakoen eta baztertutakoen zerrendaren onarpena

- Inskripzio-eskabidea
- Zerrendak onartzeko deialdia
- Behin-behineko zerrendak onartzeko proposamena
- Gobernu Batzarrak zerrenda onartu izanaren ziurtagiria
- GAOn argitaratzea
- Jakinarazpena
- Behin-behineko zerrendak
- Alegazioa
- Txostena
- Gobernu Batzarrak alegazioak onartu izanaren ziurtagiria
- Berraztertze-errekurtsoa
- Errekurtsoari buruzko dekretua
- Jakinarazpena
- Gobernu Batzarrak behin betiko zerrenda onartu izanaren ziurtagiria
- Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak

Zozketa

- Zozketarako irizpideak
- Gobernu Batzarrak onartzea.
- Onartuen zerrenda eta zozketako zenbakia
- Irizpideen jakinarazpena
- Notarioaren akta, lehen zozketarena
- Jakinarazpena eta dokumentazioaren errekerimendua
- Dokumentazioa aurkeztuta
- Baztertu izanaren jakinarazpena
- Bigarren zozketaren prozedura
- Jakinarazpena
- Prentsa-oharra
- Notarioaren akta, bigarren zozketarena
- Uko egitea

Etxebizitzak aldatzea

- Jarduteko proposamena
- Hirigintza Batzordearen irizpena
- Gobernu Batzarrak onartu izanaren ziurtagiria
- Etxebizitza aldatzeko eskaera
- Txostena
- Zozketaren akta